

Piramidea

Eta *protestantismo osoan eragin handia eduki du hurrengo mendeetan ere.

Ik. Ebanjeliozko iratzarraldia.

Piramidea

Hirugarrenetik hamazazpigarren dinastietara Egiptoko faroaiak eta aitonen semeak eta erreginak ehorzteko egiten zituzten hilobi oroigarri handiak. Ez ziren *tenplu edo jauretxeak, geroago Ertamerikan aurkitu zituzten piramide moztuak edo kamutsen aurka; baina Egiptokoek ere sarritan hilobi-tenpluren bat eduki ohi zuten ondoan.

Ik. Hilobi-hilarriak.

Piztuera

Sin.: Berpizkundea

Kultura eta zibilizazio guztietan nabari da geroko bibitzaren gogoia, hainbat tankera mitologiko eta filosofiko ezberdinetan adierazten dena.

Era berri eta bereziz erantzuten dio *kristautasunak, giza bihotzetan erroturik eta zabaldurik dagoen irrika horri. Piztuera da erantzuna, kristau-kredoko sineskizunik behinena, S. Paulok dioenez: "Kristo piztu ez bada, hutsa da gure mezua, eta hutsa gure sinestea" (1 Kor 15,14). Horregatik haxe da *apostoluen predikaren muina: "Jainkoak piztu egin zuen hilen artetik" (Ap Eg 3,15; 4,10); "Gure bekatuengatik hil zen Kristo, Liburu Santuek esan bezala; hobiratu izan zen eta hirugarren egunean piztu zen; Kepari (Zefas-i) agertu zitzaion, eta gero hama-biei. Gero bestehun eta gehiago senideri batera agertu zitzaion" (1 Kor 15,3-5).

Piztuerari buruzko fede-formula horrek bazuen lehenagorik, zeinaren muineko mezua Liburu Santuen araberrako Jesusen heriotza, hobiratzea eta piztuera, baita Kepari (Zefas-i) eta gainerako apostoluei egindako agertaldiak bait ziren.

Beste erataria ere adierazi zuten hasierako kristau-elkartearen piztuerari buruzko sinestea: Goratzarre kristologikoetan (Fil 2,6-11; 1 Tm 3,16; Ef 4,7-10; Erm 10,5-8) piztueraren testiguen esperientzia eta leku-kotzatan (1 Kor 15,8-11; Ap Eg 9,1-9) eta ebanjelio sinoptikoetan nahiz Joanenean konstatzen dituzten hilobi hustuaren hainbat kondairetan. Esperientzia historiko horietatik sortzen da eta horietan oinarritzen Jesusen piztuerako eta geure piztuerako sinestea.

Era ezberdinez aditu eta azaldu izan dute Jesusen piztuera: horren historikotasunaren baieztapenetik eta hori Jesusen jainkotasunaren froga apologetikotzat erabiltze-

tik hasi, eta R. Bultmann-en errotikako *demitologizazioaraino, horrek Kristoren heriotzaren salbamen-zentzua besterik ez bait du ikusten piztueran.

Jesusen piztueraren testiguen bizi izan zuten esperientzia historikotik, ebanjelioetan datozkigun kondairatan azalduko horietatik, abiatuz, fedeko gertakari gisa ulertu behar da piztuera hori. Hasierako kristau-elkartearen esperientzia erabakior horrek argi berria isuri zuen Jesusen bizitza-piztueren gain eta Jesusen misterioaren sakontasun osoa eta horrek giza historian zuten salbamen-eragina aurkierazi zien *fededunei.

Geure piztuera ere iragarri egiten du Jesusen piztuerak. Antropologia berria aurkitzen da *kristologiatik abiatuz: horren arabera, gizon-emakumeek ez dute beren burua heriotza erabat suntsitzailerara helburuturik ikusten, eta bai espazioaren eta denboraren mugak gainditzen dituen betiko bizitzara.

Kristogan iragarritako eta dagoeneko buruturiko piztuera hori giza nortasunaren gaitasun guztien garapen osoa da; *kosmosaren erdigune diren gizon-emakume guztien piztuera ere gertatuko da, Elizaren fedek eta *esperantzak aldarrikatzen dutenez: "Izadiaren eta gure ahaleginaren fruitu bikain guztiak, Jainkoaren Izpirituagan lurberan zabaldu ondoren, kutsu guztietatik garbiturik, argiturik eta irudiberriturik aurkituko ditugu berriro, Kristok Aitari betiko erreinu unibertsala eskutaratuko dionean: egiaren eta biziaren erreinua; santutasunaren eta graziaren erreinua; zuzentasunaren, maitasunaren eta bakearen erreinua" (Gaudium et Spes Konstituzioa, 39).

Ik. Jesukristo; Mundu berria; Gerorengoak.

Felix Placer Ugarte
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Platonismoa

Platon-en (K.a. 427-347) eta horren jarraitzaileen filosofi sistema. Alexandriako Klemente eta Origene saiatu ziren aurrenik kristau-irakatsiak platonismoaren molde filosofikoetan ematen; baina kristau-teologo platonista handiena S. Agustin izan zen. Horren ondoren kristau-teologiaren korronte nagusi batetan eragin handia ukan du platonismoak Erdi Aroan; eta Errenazimentuan ere bai.

Ik. Agustinoismoa.

Pleroforia

Grezieratik hitza da; bizi izpiritualaren goi-mailatan jainkozko esperientziarekin